

## **Pakea Bizkaia Expovacaciones lehiaketan izango da**

***Unai Basurko belaontziaren kapitaina eta proiektuaren zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundiaren Turismo eta Kanpo Sustapenerako zuzendari nagusiari, Gabino Martínez de Arenazari Antartika helburu geografikotzat izan zuen espedizioaren argazkia eman dio. Horrez gain, Basurko standa bisitatu duen segizio-taldearekin bat egin du. Horien artean, Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismoko sailburuordea zegoen. Dohainik eta agortu arte egutegiak, lehenengo espedizioaren dokumentala eta ingurumen-kontzientziazioa, hala nola Bizkaiko eta Euskadiko sustapena helburutzat duen gizarte hezkuntza-proiektuaren inguruko informazio eranskinak eskuratu daitezke.***

Pakea Bizkaia gizarte hezkuntza-proiektua Bilbao Exhibition Centren (BEC) maiatzaren 2 eta 5 bitartean leku izango duen Expovacaciones lehiaketan izango da Bilbao Bizkaia standean.

Gaur, bertan, Unai Basurko belaontziaren kapitaina eta proiektuaren zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundiaren Turismo eta Kanpo Sustapenerako zuzendari nagusiari, Gabino Martínez de Arenazari Antartika helburu geografikotzat izan zuen espedizioaren argazkia eman dio. Horrez gain, Basurko standa bisitatu duen segizio-taldearekin bat egin du. Horien artean, Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismoko sailburuordea eta Arantza Madariaga Basquetourreko zuzendari orokorra zeuden.

Patroia eta Pakea Bizkaia tripulazioa Getxora (Bizkaia) iritsi ziren duela ia hilabete, 14.000 milia 6 hilabetetan nabigatu ostean eta hainbat kostatan aingura bota ondoren: Kanariar Uharteak, Galizia, Cabo Verde, Argentina, Txile, Uruguay eta Antartika.

Standean espedizioei buruzko bideoak daude ikusgai. Horietan (Ipar Lurmuturra, Groenlandia-Ternua eta Antartika) Bizkaiko eta Euskadiko irudia, izan diren portuetan zabaldu dute, lurraldea sustatuz. Pakea Bizkaia espedizioetan zehar lehorreratzen den portu gehienetan, hainbat jarduera burutzen ditu, besteak beste, proiektuen inguruko hitzaldiak ematen ditu patroiak eta ate-irekien egunak antolatzen dira ontzian.

Bilbao Bizkaia standean dohainik eta agortu arte eskuratu daitezke egutegiak, lehenengo espedizioaren dokumentala eta ingurumen-kontzientziazioa, hala nola Bizkaiko eta Euskadiko sustapena helburutzat duen gizarte hezkuntza-proiektuaren inguruko informazio eranskinak.

**Informazio gehiago eta elkarrizketak:**

Komunikazio Atala

Nagore Anabitarte

Tel. 00 34 943 50 39 55- 688 661 690

e-mail: [comunicacion@pakeabizkaia.com](mailto:comunicacion@pakeabizkaia.com)

**Informazioa, irudiak eta bideoak:** [www.pakeabizkaia.com/ftp](http://www.pakeabizkaia.com/ftp)